**AGINDUA, JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORDE ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOARI BURUZKO DEKRETUARI HASIERA EMATEN DIONA.**

Espainiako Konstituzioaren 149.1.27. artikuluan jasotako eskumen-tituluaren babesean, Estatuko legegileak Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra eman zuen. Lege hori da ikus-entzunezkoen arloko oinarrizko araudia.

Lege horrek honako hauek jasotzen ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko martxoaren 10eko 2010/13/EB Zuzentaraua, Estatu kideek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz dituzten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoa (ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen Zuzentaraua); eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 (EB) Zuzentaraua, 2010/13/EB Zuzentaraua aldatzen duena, merkatuaren errealitateen bilakaera kontuan hartuta.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 19. artikuluaren arabera, gizarte-hedabideen arloan Estatuaren oinarrizko arauak lege bidez garatzea Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio.

Aipatutako Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra honako dekretu hauetan jasotako hainbat alderdi baztertzen ditu:

a) 231/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzkoa.

b) 215/2007 Dekretua, azaroaren 27koa, telebista-operadoreen emisio- eta inbertsio-betebeharrei buruzkoa, film luze eta labur zinematografikoak eta telebistarako filmak aurretiaz finantzatzeko.

Gauzak horrela, beharrezkoa da aipatutako dekretuak indargabetzea eta, araudia garatzeko eskumen autonomikoa baliatuz, arau hauetan aurreikusitako irratiari eta telebistari buruzko araubide juridikoa

**ORDEN DE LA VICEPRESIDENTA PRIMERA DEL GOBIERNO Y CONSEJERA DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE DA INICIO AL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE DECRETO SOBRE LA COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL DE EUSKADI.**

Al amparo del título competencial contenido en el artículo 149.1. 27ª de la Constitución Española, el legislador estatal dictó la Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual, que viene a ser la normativa básica en materia audiovisual.

Dicha ley incorpora la Directiva 2010/13/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 10 de marzo de 2010, sobre la coordinación de determinadas disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los Estados miembros relativas a la prestación de servicios de comunicación audiovisual (Directiva de servicios de comunicación audiovisual), así como la Directiva (UE) 2018/1808 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de noviembre de 2018, por la que se modifica la Directiva 2010/13/UE, habida cuenta de la evolución de las realidades del mercado.

De conformidad con el artículo 19 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo de las normas básicas del Estado en materia de medios de comunicación social.

La citada Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual desplaza numerosos aspectos contenidos en los siguientes decretos:

a) El Decreto 231/2011, de 8 de noviembre, sobre la Comunicación Audiovisual.

b) El Decreto 215/2007, de 27 de noviembre, sobre las obligaciones de las operadoras televisivas de emisión e inversión para la financiación anticipada de largometrajes y cortometrajes cinematográficos y películas para televisión.

Así las cosas, resulta necesario derogar los decretos mencionados y, en ejercicio de la competencia autonómica de desarrollo legislativo, establecer el régimen jurídico relativo a la radio y televisión, contemplado en



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez **egoitza elektronikoan** egiaztagarria.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T7ZQT-3ZZH
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** IBONE BENGOETXEA OTAOLEA | 2026/03/17 21:29:29

ezartzea, Euskadiko ikus-entzunezko sektoreak dituen premia espezifikoei erantzungo dien arau-testu bakar batean.

estas normas, en un único texto normativo que responda a las necesidades específicas que presenta el sector audiovisual de Euskadi.

Hain zuzen ere, agindu honen bidez izapidetzen hasiko den dekretuaren xedea ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko araubide juridikoa eguneratzea da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruaren barruan.

Precisamente, el objeto del decreto a cuya tramitación da inicio la presente orden, es actualizar el régimen jurídico para la prestación del servicio de comunicación audiovisual dentro del marco competencial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Dekretu-proiektu berria egiteko eta izapidetzeko prozedurak honako arau hauetan jasotakoa bete beharko du:

a) 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena (XOEPL).

b) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2025eko maiatzaren 13koa, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera (54/2025 Ebazpena, maiatzaren 20koa, 2025eko maiatzaren 29ko EHAA, 100. zk.).

c) Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren 2023ko uztailaren 11ko Erabakiaren bidez onartutakoak (78/2023 Ebazpena, uztailaren 28koa, abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk.).

El procedimiento de elaboración y tramitación de proyecto de decreto deberá ajustarse a las prescripciones contenidas en las siguientes normas:

a) Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (LPEDCG).

b) Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (Resolución 54/2025, de 20 de mayo, BOPV n.º 100, 29 de mayo de 2025).

c) Directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Órdenes y Resoluciones aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 11 de julio de 2023 (Resolución 78/2023, de 28 de julio, BOPV n.º 149, de 7 de agosto).

Ildo horretan, XOEPLren 12.1 artikuluak ezartzen duenez, proiektatutako arau-xedapenaren gaiaren gainean eskumena duen saileko titularraren aginduz prozedura hori hasiko da. Testu hori araua egiteko prozeduraren oinarrizko funtsa eta ardatz nagusia da.

En ese sentido, la LPEDCG establece en su artículo 12.1 que el citado procedimiento se iniciará por orden de la persona titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que verse la disposición normativa proyectada, texto que se erige en fundamento básico y eje central del procedimiento de elaboración de la norma.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta XOEPLren 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (hasteko aginduak bete beharreko edukia zehazten duena), honako hau

En atención a lo expuesto y de conformidad con lo establecido en el artículo 13.1 LPEDCG, que especifica el contenido necesario que habrá de observar la orden de inicio,

**EBAZTEN DUT:**

**RESUELVO:**

**Bakarra.-** Euskadiko ikus-entzunezko komunikazioari buruzko dekretu-proiektua

**Único.-** Aprobar el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de decreto sobre la

egiteko prozeduraren hasiera onartzea, agindu honen eranskinaren arabera.

Vitoria Gasteizen,

comunicación audiovisual de Euskadi, de acuerdo con el Anexo de esta orden.

En Vitoria-Gasteiz,

IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

La vicepresidenta primera del gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística

**Eranskina / Anexo**

Lehenengoa.- **Arauaren xedea eta helburua**.

Hasierako agindu honetan aipatzen den dekretu-proiektuaren xedea eta helburua ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua emateko araubide juridikoa eguneratzea da, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruaren barruan.

Primero. **- Objeto y finalidad de la norma.**

El proyecto de decreto del que trata esta orden de inicio tiene por objeto y finalidad actualizar el régimen jurídico para la prestación del servicio de comunicación audiovisual dentro del marco competencial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bigarrena.- **Proposamenaren egokitasuna, arautzeko aukerak eta arau berriaren beharraren justifikazioa.**

Arau-proiektuaren jatorria Estatuak ikus-entzunezkoen arloan duen oinarrizko araudiaren garapen autonomikoa da, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra, 2022ko uztailaren 9an indarrean sartu zena.

Lege horrek, lehen azaldu den bezala, honako hauek txertatzen ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko martxoaren 10eko 2010/13/EB Zuzentaraua, estatu kideek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz dituzten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoa (ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen Zuzentaraua), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 (EB) Zuzentaraua, 2010/13/EB Zuzentaraua aldatzen duena, merkatuaren errealitateen bilakaera kontuan hartuta.

Lege horrek sartutako berrikuntzen artean, lehenik eta behin, arauaren aplikazio-eremu subjektiboa zabaltzea aipatu behar da, besteak beste, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gehitzeko zerbitzua barne hartuta. Era berean, ikus-entzunezko lan europarraren sustapen- eta finantzaketa-betebeharrak indartzen dira, eta eskaera bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetara ere zabaltzen da katalogoaren ehuneko jakin bat lan europarrekin osatzeko betebeharra, zati handi bat hizkuntza koofizialetako lanetarako erreserbatuz.

Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzu emaileen betebehar berriak ere jasotzen ditu, ikus-entzunezko esparruan adingabeen irisgarritasunaren eta babesaren arloan.

Halaber, arau berriak, aurreikuspen espezifikoak jasotzen ditu ikus-entzunezko arloan emakumeen eta gizonen arteko

Segundo. - **Oportunidad de la propuesta, alternativas de regulación y justificación de la necesidad de la nueva norma.**

El proyecto de norma tiene su origen en el desarrollo autonómico de la normativa básica del Estado en materia audiovisual, la Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual, la cual entró en vigor el 9 de julio de 2022.

Dicha ley, tal y como se ha expuesto anteriormente, incorpora la Directiva 2010/13/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 10 de marzo de 2010, sobre la coordinación de determinadas disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los Estados miembros relativas a la prestación de servicios de comunicación audiovisual (Directiva de servicios de comunicación audiovisual), así como la Directiva (UE) 2018/1808 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de noviembre de 2018, por la que se modifica la Directiva 2010/13/UE, habida cuenta de la evolución de las realidades del mercado.

Entre las novedades introducidas por dicha Ley, cabe señalar, en primer término, la ampliación del ámbito subjetivo de aplicación de la norma, incluyendo, entre otros, el servicio de agregación de servicios de comunicación audiovisual. Asimismo, se refuerzan las obligaciones de promoción y financiación de obra audiovisual europea, extendiéndose también a los servicios de comunicación audiovisual a petición el deber de garantizar que un porcentaje de su catálogo esté integrado por obras europeas, reservando una parte sustancial para obras en lenguas cooficiales.

También recoge nuevas obligaciones de las personas o entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual en materia de accesibilidad y protección de menores en el ámbito audiovisual.

Asimismo, la nueva norma introduce previsiones específicas orientadas a garantizar la igualdad efectiva entre mujeres y

berdintasun eraginkorra bermatzeko, bai eta hizkuntza-aniztasuna sustatzeko ere, edukiak hizkuntza koofizialetan ekoizten, azpititulatzen eta banatzen laguntzeko mekanismoak aurreikusiz.

Lege horrek sartutako berrikuntzak direla eta, beharrezkoa da Euskadiko ikus-entzunezko komunikazioari buruzko araubide juridikoa arau-tresna bakar batean eguneratzea.

Hirugarrena.- **Bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak gizarte-hedabideen arloan Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenen esparruan sartzen da arau-ekimena, Espainiako Konstituzioaren 149.1.27 artikuluarekin lotuta. Lege horren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, "*Euskal Herriari dagokio gizarte-hedabideen arloan Estatuaren oinarrizko arauak lege bidez garatzea, betiere Konstituzioaren 20. artikuluan xedatutakoa errespetatuz*".

Egiten hasiko den arauak gizarte hedabideei, irratien emakidari eta maiztasunen esleipenari eragiten die, eta alderdi horiek Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 6.1.h) artikuluaren arabera.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren mende egongo da zuzenean eta organikoki. Artikulu horren e) letrak xedatzen duenez, Saileko zuzendaritza bakoitzari dagokio "*gainetik dituen organoei planak, jardun-programak eta arau-garapenak proposatzea, bere eskumeneko gaietan*".

Ildo horretan, gizarte-hedabideen arloan, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari dagokio, lehen aipatutako

hombres en el sector audiovisual, así como a fomentar el pluralismo lingüístico, previendo mecanismos de apoyo a la producción, subtitulado y distribución de contenidos en lenguas cooficiales.

Con motivo de las novedades introducidas por dicha ley, resulta preciso actualizar, en un único instrumento normativo, el régimen jurídico relativo a la comunicación audiovisual de Euskadi.

Tercero. - **Viabilidad jurídica y material.**

La iniciativa normativa tiene su encaje en el marco de las competencias que la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco otorga, en materia de medios de comunicación social, a la Comunidad Autónoma del País Vasco, en relación con el artículo 149.1.27 de la Constitución Española. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 19 de dicha ley, "*corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo de las normas básicas del Estado en materia de medios de comunicación social, respetando en todo caso lo que dispone el artículo 20 de la Constitución*".

La norma cuya elaboración se inicia afecta a los medios de comunicación social, la concesión de emisoras y la asignación de frecuencias, aspectos que, conforme al artículo 6.1.h) del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de la determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, corresponden al Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Conforme a lo previsto en el artículo 6 del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, la Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social dependerá directa y orgánicamente de la consejera o consejero de Cultura y Política Lingüística. La letra e) de dicho artículo dispone que corresponde a cada una de las direcciones del Departamento el "*proponer a los órganos de los que dependan, los planes, programas de actuación y desarrollos normativos en las materias atribuidas a su competencia*".

En este sentido, en el ámbito de los medios de comunicación social, corresponde a la Dirección de Gabinete y Medios de

Dekretuaren 7.3 artikuluaren arabera, bidezkoak diren eta beste arau baten bidez Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo bati esleitu ez zaizkion administrazio-jarduketa guztiak egitea, honako jarduera hau barne hartuta: "*Telekomunikazioen arloko organo eskudunekin elkarlanean jardutea, hedabideak eta teknologia digitalari berez dagozkion gainerako zerbitzuak ezartzen laguntzeko eta dagokion administrazio-jarduera garatzeko*".

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak baliatzea, bai eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloen esparruan (18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena).

Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.3 artikuluak ezartzen duenez, sailburuei dagokie beren sailari dagozkion gaiei buruzko dekretuak onartzeko proposatzea.

Laugarrena.- **Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.**

Dekretu-proiektu honek ikus-entzunezko komunikazioaren arloko Estatuko oinarrizko legediaren garapena arautzea du helburu, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorrarena, hain zuzen. Lege horrek araudi autonomikoan jasotako ikus-entzunezko sektorearen funtsezko alderdiak baztertzen ditu. Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da arau-tresna bakar batean ikus-entzunezko komunikazioari buruzko araubide juridikoa eguneratzea eta Euskadiko ikus-entzunezko komunikazioaren sektoreak dituen behar espezifikoetara egokitzea.

Ikus-entzunezko sektoreari buruzko araudi autonomikoa eguneratzeko, beharrezkotzat jotzen da honako dekretu hauek

Comunicación Social, en virtud del artículo 7.3 del anteriormente citado Decreto, acometer todas las actuaciones administrativas que procedan y que no estén atribuidas por otra norma a otro órgano de la Administración del País Vasco, entendiéndose incluida la acción "*desarrollar en colaboración con los órganos competentes en materia de telecomunicaciones las actuaciones administrativas procedentes para el establecimiento e implantación de medios de comunicación y demás servicios inherentes a la tecnología digital*".

De acuerdo con lo previsto en el artículo 4.2 del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, corresponde a la consejera o consejero de Cultura y Política Lingüística el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, y cuantas otras le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento de conformidad con el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

El artículo 26.3 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, establece que corresponde a los/as consejeros/as proponer para su aprobación Decretos sobre las materias propias de su departamento.

Cuarto. - **Repercusión en el Ordenamiento Jurídico.**

Este proyecto de decreto tiene por objeto el desarrollo normativo de la legislación básica estatal en materia de comunicación audiovisual, en concreto, de la Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual. Dicha Ley desplaza aspectos sustanciales del sector audiovisual contemplados en la normativa autonómica. Consecuentemente, se considera necesario actualizar, en un único instrumento normativo, el régimen jurídico relativo a la comunicación audiovisual y adaptarlo a las necesidades específicas que presenta el sector de la comunicación audiovisual de Euskadi.

En aras de actualizar la normativa autonómica referente al sector audiovisual se considera necesario derogar el Decreto 231/2011, de 8

indargabetzea: Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretua eta film luze eta labur zinematografikoak eta telebistarako filmak aurretiaz finantzatzeko emisio- eta inbertsio-operadoreen betebeharrei buruzko azaroaren 27ko 215/2007 Dekretua.

de noviembre, sobre la Comunicación Audiovisual y el Decreto 215/2007, de 27 de noviembre, sobre las obligaciones de las operadoras televisivas de emisión e inversión para la financiación anticipada de largometrajes y cortometrajes cinematográficos y películas para televisión.

Bosgarrena.- **Generoaren araberako eragina.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikuluak ezartzen duenez, kontuan hartuko dira generoaren araberako eraginaren aurretiazko azterketak, eta proiektatutako arauak genero-ikuspegitik duen garrantziari buruzko lehen zenbatespen arrazoitu bat jasoko da.

Ildo berekoa da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua. Dekretu horren 19. eta 20. artikuluak, generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriei buruzkoak dira.

Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekiditeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartu zituen.

Dekretu-proiektuaren memoria ofizialarekin batera genero-eraginari buruzko azterlan xehatua aurkeztu behar dela alde batera utzi gabe, adierazi behar da badagoela genero-inpaktua ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan; izan ere, arlo horretan, emakumeen eta gizonen arteko egoera maila kuantitatiboan ez da parekidea baliabideak kontrolatzeari eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeari dagokienez.

Alde horretatik, dekretu-proiektuak berdintasunaren arloko zenbait neurri jasotzen ditu ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan. Neurri horiek lau alderditan sailka ditzakegu: ikus-entzunezko komunikazio-lizentziak emateko lehiaketak, ikus-entzunezko lan europarraren finantzaketa aurreratua, EAEko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen eta erakundeen

Quinto. - **Impacto en función del género.**

El artículo 13.1.c) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que se tendrán en cuenta los análisis preliminares de impacto en función del género, y se incluirá una primera estimación motivada sobre la relevancia desde el punto de vista del género de la norma proyectada.

En este mismo sentido se pronuncia el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en sus artículos 19 y 20, en relación con la evaluación previa del impacto en función del género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad.

El Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 21 de agosto de 2012, aprueba las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

Sin perjuicio de que la memoria oficial del proyecto de decreto deba ir acompañada de un estudio detallado sobre el impacto de género, debe señalarse que sí que existe impacto de género en el ámbito de la comunicación audiovisual, pues la situación de la mujer en este campo está lejos de alcanzar los niveles cuantitativos de los hombres en cuanto al acceso y control de recursos y a la participación en la toma de decisiones.

En este sentido, el proyecto de decreto incorpora diversas medidas en materia de igualdad en el ámbito de la comunicación audiovisual. Podemos clasificar dichas medidas en cuatro vertientes distintas: los concursos para el otorgamiento de licencias de comunicación audiovisual, la financiación anticipada de obra audiovisual europea, el Registro de personas y entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual de

Erregistroa eta ikus-entzunezko komunikazioaren arloko zehapen-araubidearen aplikazioa.

Neurri horiek generoaren araberako eraginari buruzko txostenean zehaztuko dira.

Seigarrena.- **Aurrekontuan izango duen eragina**.

Arau-proposamenak gastu publikoa handitzea dakar; izan ere, dekretuak EAEn ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen eta erakundeen erregistroa sortzea jasotzen du, eta horrek Administrazioari gastu gehigarria dakarkio.

Diru-sarrerei dagokienez, azpimarratzekoak dira ikus-entzunezkoen arloko zehapen-ahala aplikatuz lor daitezkeen diru-sarrerak eta ikus-entzunezko komunikazio-lizentzia bat xede duten negozio juridikoak egiteko baimenengatiko tasa aplikatzearen ondoriozko diru-sarrerak. Aipatutako bi kasuetan ezinezkoa da haien zenbatekoa aurreikustea.

Zazpigarrena.- **Administrazio-kargak.**

Proposatutako araua indarrean jartzearen ondoriozko administrazio-kargak gizarte-hedabideen arloko eginkizunak bere gain hartzen dituen administrazio-organoaren zerbitzuek hartuko dituzte, eta ez da aurreikusten xede horretarako baliabide material edo giza baliabide espezifikoak behar direnik.

Zortzigarrena.- **Eragina enpresa txiki eta ertainetan.**

Proiektatutako arauaren xedeak dekretu honen aplikazio-eremuaren mende dauden ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua ematen duten enpresa txiki eta ertainetan eragina du.

Eragin hori ikus daiteke, besteak beste, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen prestazio pribatuaren erregulazioan (bai aurretiazko komunikazioari buruzkoa, bai lizentziei buruzkoa) eta ikus-entzunezko eremuko adingabeen babesaren eta irisgarritasunaren arloko betebeharretan.

Era berean, enpresa horiei eragin diezaiekete ikus-entzunezko obra europarraren kuoten eta finantzaketa aurreratuaren betebeharrak bai eta EAEko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen eta

la CAE y la aplicación del régimen sancionador en materia de comunicación audiovisual.

Dichas medidas se detallarán en el correspondiente informe de Impacto en Función del Género.

Sexto.- **Incidencia presupuestaria.**

La propuesta normativa supone un incremento de gasto público, ya que el decreto recoge la creación del Registro de personas y entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual de la CAE, lo cual implica un gasto adicional para la Administración.

En lo referente a los ingresos, cabe destacar los posibles ingresos generados en aplicación de la potestad sancionadora en materia audiovisual y los ingresos derivados de aplicar la tasa por autorizaciones para la celebración de negocios jurídicos cuyo objeto sea una licencia de comunicación audiovisual, si bien es ambos casos no es posible prever su cuantía.

Séptimo.- **Cargas administrativas.**

Las cargas administrativas derivadas de la entrada en vigor de la norma propuesta serán asumidas por los propios servicios del órgano administrativo que asuma las funciones en materia de medios de comunicación social, sin que se prevea que resulte necesaria la dotación de recursos materiales o humanos específicos para dicho fin.

Octavo.- **Impacto en las pequeñas y medianas empresas.**

El objeto de la norma proyectada tiene impacto en las pequeñas y medianas empresas que sean prestadoras del servicio de comunicación audiovisual sujetas al ámbito de aplicación de este decreto.

Dicho impacto puede observarse, entre otras, en la regulación de la prestación privada de servicios de comunicación audiovisual (tanto la referida a la comunicación previa como la referida a las licencias) y en las obligaciones en materia de protección de menores y accesibilidad en el ámbito audiovisual.

Asimismo, estas empresas pueden verse afectadas por la obligación de las cuotas y de financiación anticipada de obra audiovisual europea, así como por las obligaciones de inscripción relativas al Registro de personas y

erakundeen erregistroan izen-emateari buruzko betebeharrek ere.

Ondorio horiek enpresen eraketan, abian jartzean eta funtzionamenduan izango duten eraginari buruzko txostenean zehaztuko dira. Txosten hori Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan arautzen da.

Bederatzigarrena.- **Xedapenak uki ditzakeen subjektuak eta antolakunderik adierazgarrienak.**

Subjektu interesdun gisa identifikatzen dira ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua edo ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gehitzeko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak eta erakundeak (telebista lineala, eskaera bidezko telebista, irratia, eskaera bidezko soinuduna eta telebista konektatuaren bidez emandako zerbitzua), baita Euskadiko zinema-ekoizle gehienak biltzen dituzten elkarteak ere.

Hamargarrena.- **Idazketa-sistema.**

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, dekretu-proiektua bi hizkuntzetan idatziko da publizitate ofizialaren ondorioetarako.

Gainera, XOEPLren 5.3 artikuluaren arabera, araugintza-prozedura elebiduna izango da prozedura osoan, eta araua egiten parte hartzen dutenen eta haren hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

Helburu horrekin, testua IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzuliko du, (i) arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren Erabiltzailearen Eskuliburuan, (ii) Lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian eta (iii) XOEPLren 4.j), 5., 14.3, 14.5 eta 27.3 artikuluetan aurreikusten den bezala.

Hamaikagarrena.- **Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.**

XOEPLren 11. artikuluan xedatutakoa jarraituz, dekretu-proiektua idatzi aurretik aldez aurreko kontsulta egin zaie herritarrei, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual de la CAE.

Dichas afecciones se detallarán en el correspondiente informe de impacto en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas, regulado en el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco.

Noveno.- **Sujetos y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la disposición.**

Se identifican como sujetos interesados, a las personas o entidades prestadoras del servicio de comunicación audiovisual o de servicios de agregación de servicios de comunicación audiovisual (televisivo lineal, televisivo a petición, radiofónico, sonoro a petición y servicio prestado a través de televisión conectada), así como a las asociaciones que agrupen a la mayoría de productoras cinematográficas de Euskadi.

Décimo.- **Sistema de redacción.**

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, el proyecto de decreto se redactará de forma bilingüe a efectos de publicidad oficial.

Además, de conformidad con el artículo 5.3 de la LPEDCG, el procedimiento normativo será bilingüe a lo largo de todo el procedimiento, garantizándose los derechos lingüísticos de quienes participan en la elaboración de la norma y sus destinatarios.

Con dicho objeto, el sistema empleado será la traducción del texto por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP (IZO), tal y como se prevé (i) en el Manual de Usuario de la aplicación informática para la tramitación electrónica de las disposiciones normativas de carácter general, (ii) en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 14 de mayo de 2013, por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden y (iii) en los artículos 4.j), 5, 14.3, 14.5 y 27.3 de la LPEDCG.

Undécimo.- **Audiencia e información pública.**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 11 de la LPEDCG, con anterioridad a la redacción del proyecto de decreto se ha realizado la consulta previa a la ciudadanía

Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarriz. Aldez aurreko kontsulta Irekia atarian kontsulta daiteke, esteka honen bidez.

mediante anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la cual puede consultarse en el portal Irekia a través del siguiente enlace.

Halaber, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidetza egingo da, eta horrela, nahi izanez gero, pertsona fisiko eta juridikoek ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Asimismo, se realizará el trámite de audiencia e información pública previsto en el artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, a los efectos de que puedan realizar sus aportaciones las personas físicas y jurídicas que lo estimen oportuno.

Hamabigarrena.- **Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

Duodécimo.-. **Trámites e informes procedentes.**

Agindu-proiektua XOEPLn eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari dagokionez.

La elaboración del proyecto de orden se efectuará de conformidad con lo previsto en la LPEDCG, así como en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en lo referente a la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango de ley y reglamentos.

Dekretu proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia eta lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak kontuan hartuko dira, bai eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko eskatzen diren kontsulten eta txostenen emaitzak ere.

La redacción del texto del proyecto de decreto se realizará atendiendo al contenido de esta orden, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y, en su caso, al resultado de las consultas e informes que se soliciten para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.

Proiektua idatzi ondoren, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak aldez aurretik onartu beharko du.

Una vez redactado el proyecto se someterá a aprobación previa de la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística.

Arau-eraginaren azterketaren memoria idatziko da, XOEPLren 15. artikuluan aurreikusitakoa jarraituz.

Se redactará la correspondiente memoria de análisis de impacto normativo, de conformidad con lo previsto en el artículo 15 de la LPEDCG.

Era berean, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena egingo da, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari helaraziko zaio, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikuluan xedatutakoaren arabera (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zena), generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa eta proiektuari buruzko txostena behar bezala gauzatu direla egiazta dezan.

Asimismo, se elaborará el informe de evaluación previa del impacto en función del género y se dará traslado del mismo a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 20.6 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, verifique la correcta ejecución de la evaluación previa del impacto en función del género e informe acerca del proyecto.

Prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie aurreikusitako erregulazioak zuzenean eragin diezaiekeen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei, XOEPLren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

a) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eragina eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan xedatutakoa betetzeko (233/2012 Dekretua, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena).

b) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12.1.n) artikuluaren arabera.

c) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikuluan jasotakoaren arabera.

d) Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, honako hauetan ezarritakoaren arabera: (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikulua; (ii) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995

Se dará participación en el procedimiento a las Administraciones de la Comunidad Autónoma que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista, de conformidad con lo previsto en el artículo 18 de la LPEDCG.

Se solicitarán los siguientes informes preceptivos:

a) Informe de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura y Política Lingüística sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, para dar cumplimiento a lo dispuesto en el Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

b) Informe de la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno, de conformidad con el artículo 12.1.n) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

c) Informe del Consejo Económico y Social Vasco, de conformidad con lo recogido en el artículo 3 de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco.

d) Informe de la Comisión de Gobiernos Locales, de acuerdo con lo previsto en el artículo 91 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

e) Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control económico, de conformidad con lo establecido en (i) el artículo 25 del Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, (ii) el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la

Dekretua; (iii) XOEPLren 23. artikulua; eta (iv) Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikulua.

f) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu-proiektua izapidetzen amaitu ondoren, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, XOEPLren 24.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, aurrekariak eta egindako izapideak aipatuz.

Xedapena egiteko prozedura amaitutakoan, dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, XOEPLren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hamahirugarrena.- **Instrukzioa agindu zaion administrazio-organoa**.

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari dagokio instrukzioa egitea, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 7.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horren arabera, aipatutako zuzndaritzari dagokio gizarte-hedabideen arloan bidezkoak diren eta beste arau baten bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko beste organo bati esleituta ez dauden administrazio-jarduketa guztiak egitea. Ekintza horren barruan sartzen da “*telekomunikazioen arloko eskumenak dituzten organoekin lankidetzan, teknologia digitalari loturiko komunikabideak eta bestelako zerbitzuak ezartzeko eta egikaritzeko egin beharreko administrazio-jardunak garatzea”.*

Hamalaugarrena.- **Urteko Araugintza Plana.**

Euskadiko ikus-entzunezko komunikazioari buruzko dekretu-proiektua Eusko Jaurlaritzak 2026. urterako onartutako Urteko Araugintza Planean sartuta dago.

Hamabosgarrena.- **Argitalpena**.

Comunidad Autónoma de Euskadi, (iii) el artículo 23 de la LPEDCG y (iv) el artículo 7.a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas.

f) Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

Una vez finalizada la tramitación del proyecto de decreto, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento con el contenido que señala el artículo 24.2 de la LPEDCG, reseñando los antecedentes y trámites realizados.

Finalizado el procedimiento de elaboración, el proyecto de Decreto se someterá a la aprobación final por el Consejo de Gobierno, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 de la LPEDCG.

Décimotercero.- **Órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.**

La Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social es el órgano al que se encomienda la instrucción, de conformidad con lo previsto en el artículo 7.3 del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, que dispone que corresponde a dicha dirección acometer todas las actuaciones administrativas que procedan en el ámbito de los medios de comunicación social y que no estén atribuidas por otra norma a otro órgano de la Administración del País Vasco, entendiéndose incluida la acción “*desarrollar en colaboración con los órganos competentes en materia de telecomunicaciones las actuaciones administrativas procedentes para el establecimiento e implantación de medios de comunicación y demás servicios inherentes a la tecnología digital*”.

Decimocuarto.- **Plan Anual Normativo.**

El proyecto de decreto sobre la comunicación audiovisual de Euskadi está incluido en el Plan Anual Normativo aprobado por el Gobierno Vasco correspondiente al año 2026.

Decimoquinto.- **Publicación.**

Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiarekin bat etorriz, zeinaren bidez arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da.

De conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, la presente orden de inicio se hará pública en el tablón electrónico de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Halaber, aldez aurreko onarpen agindua ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da.

Asimismo, la correspondiente orden de aprobación previa también se publicará en el tablón electrónico de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Horretaz gain, proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutako publizitate-agindua betetzeko.

Además, el texto del proyecto se publicará en Legegunea, para dar cumplimiento al mandato de publicidad dispuesto en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Azkenik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluaren arabera, arau-proiektu hau onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Finalmente, de acuerdo con el artículo 64 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, una vez aprobado, el presente proyecto de norma se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.